Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2024/4
Data / Fecha 2024/03/07
AKTA / ACTA

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2024IGOB0004
**Gaia/**Asunto**:** 2024/03/05 Tokiko Gobernu Batzordea/Junta de Gobierno Local de fecha 05/03/2024

**Tokiko Gobernu Batzarra 2024ko martxoaren 05ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2024ko martxoaren 05eko 14:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Alazne Korta Zulaika

- Eñaut Gracia Ibarra

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

- Maite Gartzia Ontiveros

- Yolanda Martín Marcos

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Bernar Lemos Taberna (*ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU*).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia Idazkari orokorra.

**1. 2024ko otsailaren 20ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea. (2024IGOB0003)**

Oharrik gabe onartu da.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 05 de marzo de 2024.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 14:00 horas del día 05 de marzo de 2024, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), las siguientes concejalas y concejales:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Alazne Korta Zulaika

- Eñaut Gracia Ibarra

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

- Maite Gartzia Ontiveros

- Yolanda Martín Marcos

No asiste excusando su inasistencia, Bernar Lemos Taberna (*ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU*).

Asiste y da fe del Acto la secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 20 de febrero de 2024. (2024IGOB0003)**

Se prueba sin observación alguna.

ESKU31b65ad7-d64a-46ea-a1e6-86ebace68b16

**2. Hirigintza, Ingurumena eta Jasangarritasuna departamentuko organigrama eguneratzea onartzea. (2024ZBAR0002)**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko maiatzaren 24ko bileran onartu ziren udal organigrama eta udal departamentuen Eskumenen azken eguneraketa.

Ebazpen horretan, bi urtean behin organigraman eta departamentuen eskumenetan gerta zitezkeen aldaketak eguneratzea eta onartzea erabaki zen, alde batera utzi gabe unean uneko departamentuetan gerta zitezkeen analisi zehatzak, bakoitzaren egoera zela eta.

Onarpen horren ondoren, 2023ko irailean, Hirigintza, Ingurumena eta Jasangarritusuna departamentuko hainbat langilek onartutako organigramari buruzko zalantzak mahai gaineratu zituzten eta analisiari berrekin zitzaion.

Proiektuaren dinamikari jarraituz, hainbat bilera egin dira Giza Baliabideetako eta Hirigintza, Ingurumena eta Jasangarritasuneko departamentuetako arduradun tekniko eta politikoekin batera. Bilera horien ondorioz, egungo errealitatea hobeto islatzeko organigramari hainbat aldaketa egitea eta xehetasunak adieraztea adostu da:

1. “Planeamendua, Kudeaketa, eta Hiri Berroneratzea”, “Hirigintza Diziplina” eta “Herri Lanak, Proiektuak eta Mugikortasun Estrategia” zerbitzuetako lanpostuak elkartzea.

2. 5130 Arkitektoa lanpostua organigraman daukan kokapena aldatzen du eta departamentuko arduraduna izatera pasatzen da.

3. 5112 Arkitekto Teknikoa lanpostuak 5111

**2. Aprobación de la actualización del organigrama del Departamento de Urbanismo, Medio Ambiente y Sostenibilidad. (2024ZBAR0002)**

En la Junta de Gobierno Local celebrada el 24 de mayo de 2023, se aprobó la última actualización del Organigrama Municipal y las Competencias de las diferentes áreas y departamentos municipales.

En dicha Resolución se acordó actualizar y aprobar cada dos años los posibles cambios en el organigrama y en las competencias de los departamentos, sin perjuicio de los análisis concretos que pudieran producirse en los departamentos en cada momento, dada la situación de cada uno de ellos.

Tras esta aprobación, en septiembre de 2023, varios trabajadores del departamento de Urbanismo, Medio Ambiente y Sostenibilidad presentaron discrepancias sobre el organigrama aprobado y se retomó el análisis.

Siguiendo la dinámica del proyecto, se han mantenido diversas reuniones entre los responsables técnicos y políticos de los departamentos de Recursos Humanos y Urbanismo, Medio Ambiente y Sostenibilidad. Como consecuencia de estas reuniones, se acuerda introducir una serie de cambios y detalles al organigrama para reflejar mejor la realidad actual:

1. Agrupar los puestos de los servicios de “Planeamiento, Gestión y Regeneración Urbana”, “Disciplina Urbanística” y “Obras Públicas, Proyectos y Estrategia de Movilidad”.

2. El puesto 5130 Arquitecto/a cambia de ubicación en el organigrama y pasa a ser el/la responsable del departamento.

3. El puesto 5112 Arquitecto/a Técnico/a coordina las

ESKU31b65ad7-d64a-46ea-a1e6-86ebace68b16

Delineatzailea lanpostuen lanak koordinatzen ditu.

4. 5155 Hirigintzako Aholkulari Juridikoa lanpostuak departamentuko Pool Administratiboaren langileen ardura dauka.

5. Horrekin batera, organigrama berria onartu baino lehen, departamentuko arduradun berriak langileekin aldaketa horiek partekatzeko konpromisoa hartu du.

2024ko otsailaren 16an, Ainhoa Mutiloa Giza Baliabideetako teknikariak txosten tekniko bat egin du berrikuspenaren xehetasunak jasotzen dituena.

## ARAUDI APLIKAGARRIA

* 5/2015 LEDa, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.

* 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikokoa.

* 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

* 2/2016, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena

* 781/1986 Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Tokiko Araubidearen Testu Berregina onartzen duena

## ZUZENBIDE OINARRIAK

Halaber, aintzakotzat hartu behar da udalak toki erakunde moduan auto-antolatzeko gaitasuna duela, TAOL-ren 4.1 a) artikuluak eta xedatutakoaren

tareas del puesto 5111 Delineante.

4. 5155 El puesto de Asesor/a Jurídico/a de Urbanísmo es responsable del personal del Pool Administrativo del departamento.

5. Asimismo, antes de aprobar el nuevo organigrama, el nuevo responsable del departamento se compromete a compartir con el personal estos cambios.

La Técnica de Recursos Humanos Ainhoa Mutiloa, con fecha 16 de febrero de 2023, ha elaborado un informe técnico donde se recoge el detalle de los cambios realizados.

## LEGISLACIÓN APLICABLE

* RDL 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

* Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

* Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

* 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

* Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local

* Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de Régimen Local.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Considerando las facultades de auto organización de correspondientes a los Ayuntamientos en calidad de entidades locales, en base a lo dispuesto en el

ESKU31b65ad7-d64a-46ea-a1e6-86ebace68b16

baitan, hala nola giza baliabideak planifikatu eta enplegu publikoa egituratzeko gaitasuna, EPOETB-ren 69.3, 72. artikuluek eta ondorengoek emana.

Kontuan hartuta TAOL-ren 21.1 s) eta ETELen 10. artikuluak xedatutakoa, eta Organigrama eta udal-sail eta departamentuen eskumenak onartzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola alkateak 2023ko ekainaren 19an emandako 3.645 zenbakiko ebazpenean jasotako eskuordetzen bidez.

Giza Baliabideetako delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Giza Baliabideetako arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

**ERABAKI DU**

1.- **Hirigintza, Ingurumena eta Jasangarritasuna departamentuaren organigrama aldatzea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko maiatzaren 24an onetsia.**

Organigramari dagokien dokumentu honen I. eranskinean dago; baita ere espediente honen dokumentazioan.

2.- Akordio honen berri ematea udaleko departamentuei, eta udaleko gardentasun atarian argitaratzea.

artículo 4,1 a) de la LBRL y artículo 10 de la LILE así como en los artículos 69.3, 72 y siguientes del TREBEP, en relación planificación de recursos humanos y estructuración del empleo público.

Considerando lo dispuesto en el artículo 21.1 s) de la LBRL, y que la aprobación del organigrama y las competencias de las áreas y departamentos municipales, corresponden a la Junta de Gobierno Local por delegación del Alcalde por decreto nº 3.645 de fecha 19 de junio de 2023.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Recursos Humanos y la conformidad dada por la responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad

**ACUERDA**

1.- **Modificar el Organigrama del departamento de Urbanismo, Medio Ambiente y Sostenibilidad** aprobado por la Junta de Gobierno Local de 24 de mayo de 2023.

La documentación correspondiente al organigrama se encuentra en el Anexo I de este documento y también en la documentación de este expediente.

2.- Comunicar el presente acuerdo a los departamentos municipales, y publicar las modificaciones en el portal de transparencia del Ayuntamiento.

ESKU31b65ad7-d64a-46ea-a1e6-86ebace68b16

**ERRENTERIA**
**UDALA**
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

## I. Eranskina / Anexo I







* **5110** lanpostuak "Hirigintza, Ingururumena eta Jasangarritasuna" eta "Hiri Mantentzea" departamentuetako zerbitzu guztiak koordinatzen ditu.
** **5130** lanpostuak departamentuko 4 zerbitzuak koordinatuko ditu 5110 lanpostua hutsik dagoen bitartean eta 4 zerbitzuen langileen gaineko ardura dauka.
*** **5155** lanpostua Zerbitzu Juridikoen taldekoa da, nahiz eta organikoki Hirigintza, Ingurumena eta Jasangarritasuna departamentuan egon. Lanpostu honek departamentuko Pool Administratiboaren langileen ardura dauka
**** **5112** lanpostuak 5111 Delineantea lanpostuak koordinatzen ditu.

ESKU31b65ad7-d64a-46ea-a1e6-86ebace68b16

**ERRENTERIA**
**UDALA**
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General




Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 14:10 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 14:10 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 2024ko martxoaren 05a

Errenteria, 05 de marzo de 2024

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia

EKS | CSV: ESKU31b65ad7-d64a-46ea-a1e6-86ebace68b16
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024IGOB0004-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: AINHOA ESNAOLA ZUBELDIA - 72522979T
Data / Fecha: 2024/03/07 08:19:21